



PRINCIPE DE VIANA

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/68

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bostgarren urtea - Pamplona-Julio-Agosto, 1970, Uztaila-Abuztua, - Iruña - 53-54 gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

HERRIA, ALKATE

Euskal asteroko ezagun baten lehenbiziko orrian, sei aldizkari eta bi irratitako lan-kidek hartutako «ERABAKI NAGUSIA» ikusi berria dugu. Eta beste ezer baino lehen hona hemen erabaki bera:

«Euskeraren batasuna egiten atera goaz danok alkarrekin.

Zertan egin batasuna eta nolako abiadura abar, erriak erakutsiko digu ta jarriko neurria.

Erria aitatzean, au esan nai da: ikasten jardun gabe euskera dakin erria.

Erri ori eskolatuz eta orren eskutik eta beraren pausoen abiatzen gera batasunera bidean.

Bide ortan eman nai litzakenez guztia, ezagutuko du alde aurretik erriak eta jakingo du zergatik ematen dan eta zergatik ala; eta tarte ere emango zaio, bere iritziak agertzeko.

Be'or euskeraren batasuna eta bekar biotzen alkartasuna.

ORRA ERABAKI NASUSIA.»

Berez txalogarri da euskeraren batasuna egiten hasi nahi. Aspaldi horrexen atzetik dabilzanak ba dira gure artean. Bide hobe baten bila zebillenak ere bere errespetoa merezi du, gurea berekin duela. Goazen orai arira.

HERRIA

Erabaki nagusia-ren kako guziaz herrian dago. Ni ere herrizale naiz euskera ikaskintzan eta herritik ditut joskerak jatorrenak hartu. Herria dugu euskeraren maisu; batek ahaztu diguna besteak gorde du. Jakintsuenak ere ba luke herri hizkuntzan zer ikasi. Ugaritasun hori ote dugu nahi ginuken batasuna?

Hiru kezka ditut nik Erabaki Nagusian:

1) Herria hartzen du batasunaren maisu eta zuzendaritza. Herriak erakutsiko

omen digu zertan egin batasuna eta nolako abiadura.

2) Maila asko dira herri jakintzan eta «ikasten jardun gabe euskera dakin herria» aukeratu duzue. Irakurtzen ez duen herria, beraz? Egunerokotan moldiztegitik datorkion idatziak uzten duen kutsuaren berri danok ba dugu. Ikasketa hortaz ere garbi dena?

3) Edozein gaitan gertatzen dena, eskola gabeko herria edozein ontzi moldetara biguintzen den ura bezela da; edo mugarik ez ba du, berdin zelaian banatu ta galtzen. Hortako dio «Erabakiak»:

«Erri ori eskolatuz... Bide ortan eman nai litzakenez guztia ezagutuko du alde aurretik eta jakingo du zergatik ematen dan eta zergatik ala».

Ez da ezerengatik bainan, gaurko egunean nik dakidan herri batean gertatzen ari dena datorkit gogora. Bere izena idazten ez dakin gutxi da herrian, eta hain zuzen, bana-ka hoietako bat dute aspaldian alkate. Hobeki gauzak ulertzeko, Sekretario jaunak ez daki euskeraz eta erdera oso jantzi eta apainduan adierazten dizkio mordolokeriak. Azkenean, nagusiaren orde zela lau zirri marra egiten ditu eta, alkateak esana.

ETA... ZOIN HERRI?

Edozein herritan ba ditugu neurri hortan batasunaren maisu izateko gai liraken euskaldunak. Hizkuntza aldetik ez-berdintasun handia ba da herri batetik bestera, naiz ikasten jardun gabeak izan. Zoin izango ote da euskera batu horren maisu jatorra?

Irrati baten zurrun-burruren sonbel azpian, diren berriekin sortu laike iskanbilla ederra. Prointzi osoko aldizkaria izan nahi lukenak ba luke buru hauste polita. Mondragoi. Goierrri edo Oyartzungo euskera hartuko luke erdutzat? Herri bakoitzak berea du hoberena.

Eta zer esan Euskal-herri osorako irakurgai izan nahi zuen asterokoaz? Zoin herri hartu digu maisutzat? Naparroan arpidedun jarraitu zaion taldetxoak ere ba du bere

«erabakia» hartzeko eskubidea. Herri mugak piztu behar al ditugu gure artean?

GURE IRITZIA

Batasuna ez da amua bota eta zer arrai —edo arraio—

aterako den begira dagonaren jokua. Ur nahasien bila dabilzanak entzun bezate. Sasi jakintzan ezin ginen beherago erori.

Herria izan behar ba du gait honatan alkate, Euskal-herriko mendi guziak berdin on dira alkate makilak sortzeko eta, izan ere, ez nuke borroka be-

erri horren barnean nere burua ikusi nahi.

Nork irabaziko luke diren baino gehiago gauzak nahasi ta?

Ez da hau ere pake bidea.

J. M. SATRUSTEGUI.

1970 — UZTAILAK 5 eta 12

XXXI-garren urtea 383-384 Zenbakia

ZERUKO ARGIA

ZEZENA, ALKATE



Urtero bezala, antziak eta baziak kale zuzen-plazaraino erri osoa eta geiago, zer dala ta zezena nagusi! Iruñerak ez dira nekazten, ez loaitzen aste osoko jaialdiak badira ere. Bat batean giro iri sortzen ere jakin egin bear da. Argi ibilli mutillak eta «San-Ferminak» euskalduntzen saia gaitzen, premia ba daukate ta.

ZARAUTZEN, AUR-IPUIEN BIGARREN SARI AUNDIA

Zarauzko Ekin eta Turismo Etxeak, Aur-
-ipui Txapelketa antolatzen du bigarren aldiz.
Leialde orren oinarriak, auek dira:
—Ipuiaren luzera, gutxienez sei orrialdekoa,
ta geizenez, amabi orrialdekoa izango da,
lerrotik lerroa tarte bat utziaz.
—Ipuiak, zuzenbide onekin bialdu bear dira
Zarauzta: «Para el concurso II Gran Premio
Zarauz del Cuanto Infantil» Gaiñera, beste es-
-tali itxi baten barruan bialduko ditu bakoitzak,
bere izena ta etseko zuzenbidea.
—Ipuiak, euskeraz, naiz erderaz idatziak
izan ditezke.
—Idazle ta egile, edozein izan ditek, zaar
naiz gaitze.
—Euskerazko lanentzat, sari bat: eta erde-
-razkoentzat, beste bat izango da ematekoa. Ba-
-koitza 7.500 pezetaakoa.
—Lanak artzeko azken-eguna, Abuztuko 30-
-garrena izango da.
—Sariak, irailaren 9'garrenean, aurren ba-
-natuko dira.
—Masaiko erabakitzaileak, Zarautzen udaldiri
-igartzen duten jaun batzuek eta uskaltzain
-diko beste zenbait izango dira.

NON ZER

- ESAERA ZARRAK Intzak 2 garrenean
- KEZKAK Gaztñagak 3 garrenean
- ABADE ON BAT IL DA Imanolenak 3 garrenean
- GAZTEAK ETA EUSKALERRIA GAUR Latxagak 4 garrenean
- KLERIKALISMOA ALA ANTIKLERIKALISMOA? Txalintxok 6 garrenean
- EUSKAL KONDAIRAN ZEAR Zabalak 16 garrenean

BAIONAKO ASTEA DALA TA

Orainso lortu da itun bat gure artean. Itun onen bidez Europarantz aurrerapen bat egin da. Baina itunen au dala eta ez dala Euskal-herriko iparraldean estuialdi berezi bat sortu da eta estuialdi orretan ikusi da gure anaien makalutasuna. Makalutasun au alde batetik ikusia eta bestetik eragin apur bat gure kulturara eta ekonomian aidentik: Baionako Astea, Baiona eta Bilbo-ko Batzarak, etab. Euskal-herriko gai batzuek aipatzen ondo etorriko dala ikusiko gaituzte.

Gai asko ikutu dira eta oraindiko Baionako Astea, Irakaskintza, Literatura, Ekonomia, Fedea eta Kultura aipatuko dira eta ekonomian lanetan batzar geiago egingo dira.

Funkzioneriko arlo gertatzen Baiona uri aundi bat bezela igitzen da.

ARRANTZA

Arlo onetan, egia garrantziena izan da arrainik eza, antxoarik eza gure arrantzaleen kalterako. Iparraldeko itsasertzean, arrain mota au ugaria-ko azaltzen dalaiko, gure egokaldeko arrantzaleak arantzatu izaten dira antxoaren bila, Baionako itsasertzean, Donibane inguruetara, bokarta egoten dala tokietara. Baina beste aldeko itsasertzeak eskurtatze au ezin du-
te ikusi eta euren uretan igitzen di-
ran arrainak eureniztat bakarrik nai
dituzte.

Orain arrain mota guztiakaz gertatuko da, legatza, auna, berdelia, etab. Euren itsasertzeko arrainak eureniztat bakarrik izango dira eta esan leke, orain arte, euren urak eta gureak bat eginda egon dira.

Erriak geroago eta zorroztasun geiago daukate eta gure auzokoe-
kin emendik aurrera ez da gauza
omik izango zoritzarrez. Estuialdi
orreek arrantzaren arloan sortzen di-
ra eta beste arloetan ere ikusten da
estuialdia.

LURGINTZA

Emen, arloa, zati bitan aipatu bear da. Leenbizi, lurgintza bakar bakarrik eta bigarrenez lurgintza eta abe-
-luzkeraz. Lurgintza bakarrean, au da, abelaldeak sartu barik, iparraldekoak baino geiago gera, ez Bizkaia eta Gipuzkoagaitik. Araba eta Nafarroagaitik barizik, Araba eta Nafarroak, lurgintzarako egitura beak daukate eta Bizkaia eta Gipuzkoak txarretarikoz, motze-
-gia.

Abelakuntza, oster, iparraldean aberatsago agertzen da, egilume beak, enda beak, aberre-janari merkeagoak, salneurri obengoak, lagun-

tasun geiago etab. arkitzen da Euskal-herriko nekazarien artean, Aunamendiko beste aldean.

Emen, egoaldeen, badakizute gure baserrien beherapena nolako dan. Gure baserriak beheraldera datoz mailaka mailaka. Gure baserriko bizimodu, beti izan da berez, bizimodu latza, gogorra, baina gizon zindoaeren iturburu. Orain, aldame-
-nako bizimodu bigunera ikusten di-
te eta nekazariak bereala asten dira
heak saltzen, solo ederretan pinua
sartzen eta industrian edo saleros-
-ten ogibide burri bat arkitzen eta
kito. Iraultza berez bat sortzen da
emen baina ez gera aritzen orratio.

Iparraldean, nekazariak laguntasan
aundiago irixten dute alde batetik
eta bestetik erakunde obengoak
dauzkate. Arto eta esnea ugari eta
gainera salneurri onenean jasotzen
dira bertan. Barazkiak edo aleak lan-
-tzeko tresnak bere barriemendiar-
-darabizkitate eta onela baserriak abe-
-rasgarriago bihurtzen dijaz. Dana
bearko.

INDUSTRIA

Arlo onek baditu zati bereziak
bere.

Leengaien aldetik iparraldekoak
dira nagusien, baina lansarien alde-
-tik begiratu ezker gure alde da
nagusien. Esan nai dogu, gure lan-
-tasun motzagoak dirala eta leen-
-gauen ezberdintasuna edo leengai eza
garaitzen dogula eta orrela gure au-
-zokoei salitzeko gauza gerala indu-
-striaren arloan. Gure salneurrikoak
merkeagoak diralako eta gainera aiek
baino industri geiago dogu eta langi-
-le trebeagoak. Jaingoikoari eskerrak.

SALEROSTEA

Arlo onetan gu baino bizkorrago
ari dira jaten. Bizkortasun au ikus-
-teko turismorari begiratzera baino ez
dago. Uda datorrenean, iparraldean,
kanpoko jendetza ugari ikusten da,
Donostian baino geiago askotan.

Oreterako tokiak txukun eta garbi
gordetzen dira eta salneurriak bere
era onean.

ITUNAREN ONDOREAK

Itunaren ondoreak onak izango di-
-ra dantotzako, an eta emen. Itunak
osatuko gaitu. Euren leengaiak gu-
-te langileak landuko dituzte. Eurak
geroago eta arto eta esne geiago bil-
-tzen dute eta guk geroago eta gei-
-go erosi. Aien industri eza guk be-
-teko dogu eta turismorari buruz, ipar-
-raldeko toki asko guk beteko dogu,
pasaportea kentzen danean.

S. LARREA
SAKINGANE

ERABAKI NAGUSIA

«HERRIAK», «GOIZ-ARGIA», «ZERUKO ARGIA», «AGUR»-ek,
«KARMELE»-ek «KILI-KILIK», «LOYOLA IRRATIAK», «LA VOZ DE
GIPUZKOAN» irrat-saioak egiten dituztenak, artzen duten erabaki
nagusia:

Euskeraren batasuna egiten atera goaz danok alkarrekin.
Zertan egin batasuna eta nolako abiadura eta abar, erriak
erakutsiko digu ta jarriko neurria.

Erria aitatzean, au esan nai da: ikasten jardun gabe euskera
dakin erria.

Erri ori eskolatuz eta orren eskutik eta beraren pausoen abia-
-tzen gera batasunera bidean.

Bide ortan eman nai litzakenez guztia, ezagutuko du alde
-aurretik erriak eta jakingo du zergatik ematen dan eta zergatik
-ala; eta tarte ere emango zaio, bere iritziak agertzeko.

Betor euskeraren batasuna eta bekar biotzen alkartasuna.

ORRA ERABAKI NAGUSIA.

El folklore es el alma del pueblo

Aunque el diccionario diga que el folklore es la ciencia del pueblo o precisamente porque dice eso, nosotros entendemos que es más que ciencia, es, como decimos aquí, el alma del pueblo, como pueblo, porque si cada individuo tiene su alma propia, que de sobra sabe lo que tiene que hacer con ella, y allá él si no lo hace, el pueblo, como tal, no tiene un alma que salvar, pero si tiene un conjunto de valores, heredados unos, gananciales otros, cada generación aporta algo bueno, que debe conservar y aumentar para legarlo a los que nos sucedan.

A este grupo de valores se le denomina folklore.

Palabra que, quizá, se haya desprestigiado, por abuso e interpretación errada de la misma, al aplicarse indebidamente a manifestaciones que nada han tenido que ver con el alma del pueblo.

Pero aquí en Navarra, gracias a Dios, sabemos muy bien, aunque no hagamos todo lo posible por mantenerlo y aumentarlo, lo que es nuestro folklore.

Y nos vamos a referir, solamente, a la música y a la danza, que ya decimos, aunque muy importante, no es todo.

Navarra es rica en tradiciones. Navarra es católica, la que más, la que menos, Dios lo sabe. Y es alegre, muy alegre, eso sí podemos asegurar.

¿Y a qué viene esto? Porque no podemos deslindar los dos campos: la Religión y la alegría.

Las fiestas de todos los pueblos de Navarra están dedicadas a sus Santos Patronos.

Y aparte de las Patronales, otro motivo de jolgorio suele ser las romerías a tal o cual Santuario.

La geografía de Navarra está llena de Monasterios, Santuarios, ermitas, a las que una o varias veces al año llegarán, peregrinos, los pueblos cercanos, o lejanos, a rendir homenaje o a implorar favores al titular de las mismas.

Habrás observado, que en todos, todos, por pequeños que sean, hay delante una explanada mayor o menor; ¿para qué?

Porque Navarra ofrecía, y ofrece, a sus Benefactores, lo mejor que tenía.

Y entre lo mejor estaban sus danzas, ejecutadas por lo más lucido del pueblo, su juventud, que exhibía sus habilidades propias, cada pueblo tenía las suyas, auténticas y con música original en cada caso.

De ahí la riqueza de danzas de Navarra. Cantarían lo mismo, aunque la modulación temperamental fuese distinta. El «ogi zerutik» es el mismo, pero suena distinto ante San Juan Xar de Yanci, que en Santa Cruz de Leiza; el «Agur Jesusen Ama» es idéntico en Lesaca, que en Maya, pero el aire no es el mismo. Y el «Mikel Gurea», cambia de entonación de Larráun a la Burunda.



Y no digamos de la jota. La jota que canta un segador en la Bardena, no puede ser como la de una ronda ante el «pertegao» de Aibar. Ni la que canta un pastor de Uztároz en Tauste, como la que cantaba un almadiero de su mismo pueblo cruzando Burgui.

Ni las coplas del joto-bersolari peraltés Chueca, como las de las Hermanas Flamarique.

Y así... Pero mucho más ocurría en las danzas. Puesto que cada pueblo tenía la suya propia para las grandes solemnidades.

Muchas se conservan, gracias al esfuerzo de pueblos conscientes. Otras, perviven en el recuerdo y podrían restaurarse fácilmente. Otras, se perdieron.

Danzaris de Muskilda, Volantes de Valcarlos, La Era de Estella, ingurularis de Leiza y Larráun, municipales de Tudela, Pamplona, Tafalla, Sangüesa, mutildanzaris baztaneses, txun-txun roncalés, zubi-gain y ziarka lesacarras, makildanzaris de Vera, trapatán de Doneztebe y tantos y tantos, Muthiko, Oberena, Sección Femenina... uníos todos y trabajar mucho por la extensión de nuestras danzas, ayudándoos mutuamente, no conformándoos con que luzcan vuestros propios cuadros.

Hay que revivir, los rescoldos, que hay muchos, de viejas danzas. Hay que luchar, mucho y ¡unidos! por el folklore vivo.

Que no despreciamos lo moderno, si es bueno. Ongi-etorri, bienvenido, en buena hora.

Pero manteniendo nuestra personalidad.

Para que Navarra no caiga en el «teletontamiento» borreguil de masa amorfa de forofismos futboleros o de otros ismos pasivos.

Queremos una juventud navarra deportiva, sí, pero en acción.

Como queremos un folklore vivo, como los Sanfermines, como las fiestas de todos los pueblos, en las que predomine lo nuestro, bien cantado, bien bailado y con mucha alma.

Que el III Concurso de Fandango y Arriñ-ariñ, se celebre en la Plaza de Toros y que en los tendidos sólo haya personas que por su edad o temperamento sean dignos de ser espectadores.

Porque todos los demás están en el ruedo, actuando.

Mozos de las peñas, organizadores del Concurso, a ver si es verdad.

¡Beti aurrera! ¡Siempre p' delante!

KIRRU

Iruñeko Aiantamenduaren programa batetik artua)



ELIZAREN ITZA

Eliza gaurko munduan

Oraingo alde hontan, beinere baño geiago, jendea ugaritzen ari dalarik, ta gizadiaren eskarioari, geroan ta geiago biziagoari, erantzuteko, lurrari geiago emanerazi behar zaio, industri bizkorrago antolatuta ta guztien beharrei egoki banatu.

Hortarako ugaritzen ahal dira teknika berriak, sortu elkarte berriak, lengoak zabaldu. geiago eta egokiago lanari aurrerapideak emateko, hortan saiatzen direnen egin ahalak eragitiñaz.

Baño asko ateratze horrek, gauzak ugaritze ta irabazi berri hoiak gizonaren serbitzua ta egokiera billatu behar dute, gizon osoarena, ots, gorputz eta animaren lantzea, espirituairen eziera, reijioaren eta oitura onen ederra, alderdi guzietan, larru zuri, ori, edo beltzaren berexatasunik gabe.

Azitze hori zuzendu behar du gizonak. Ez bakar batzuk, ez dirudun saill indartsu batzuk, ez elkartasun politiko batek, ez eta ere laterri indartsu batzuk; mailla guzietan, ahal dituzken gizonik geienak ta nazio arteko aroan nazio guziek azitze horren lanbidetan eskua sartu behar dute.

Aritze hau ez ditekete utzi ekonomi indarren borroka biziari, ezta agintariak artu dezaketen erabaki soileri; horregatik oker jokatzen badira, askatasun ustel baten aitzakiarekin, nahi ta nahiezko eraberritzeak eragozten dituztenak, ez gutxiago personoen edo taldeen eskubide oinarriak zapaltzen dituztenak produzio orokar bat aurrera ateratzeko.

Edozein erriarrek, eskubide, daukan bezela baita egin beharra ere bere erriaren jasoteran egin ahala saiatzeko, ta ez dezake alper iduki erriak behar dituen gauzak, lurak edo aberastasunak.

Izugarriko desberdintasunak diru-kontuan daude ta egunetik egunera aundiagoak, nahi ta nahiez obeki banatu behar dira, ahalgin guzietan, bi mailletako saillak itxuran konpontzeko.

Alderdi askotan nekazaritzaren egoera latza lehuntzeko, laguntza berexi bat eman behar dakio, lurrari geiago kentzeko, uztaita obeki saltzeko, tresna propioak erosteko, ta irabazi itxurazko bat seguratzeko, egiten duten lanaren ariara, azken mailako arlotte bat bezela ez jotzeko nekazari baseritarra.

EUSKAL ERRIKO LEIOA

MICHEL LABAGUERIA JAUNA GAIXOTUA

Mugaz beste aldeko Euskal Erriari dan Kanboko mediku ta lurralde hartatikako Pariseko Parlamentuan diptadatu izana dan Michel Labagueurie lagun maitea gaixorik dago biotzeko mina, Miokardioko infartua, izanik ta luzaz ohean egon beharrez.

Lehen baino lehen berri ere bere osasuna ar dezala ta osoan senda dedilla biotzez ta gogotik desiatzen dugu. Nere agurrik sentikorrenak berarengana joan ditezela.

«ARGI BAT ILUNTASUNEAN»
EUSKAL LIBURU BERRIA

Bilboko semen dan Xabier Gereñio jaunak izenburu honekin nobela bat argitaratu du.

Gure euskal nobela berpiztuzten ari da iaioi. Ioan berri den urtean lau euskeraz izkribitutako nobela argira atera ziran, lauak irakurgarriak, denak gaurkotasunez jantziak, gogoz eta atseginez leitzeko diranak, errotik gaurko bizi modu eta gustoari pentatuak. Hara hemen beren izenak: ELSA SCHEELEN, Txillardegirena. BESTE IZAKIA, Kintanarena. EGUNERO HASTEN DELAKO, Saizarbitoriarena, eta ARANTZA ARTEAN. Azken nobela hau Gereñio ere idatzitakoa.

Aurten argitaratu berria dan «ARGI BAT ILUNTASUNEAN» izeneko Xabier Gereñioaren nobela honek gure egunetako giroari buruzko gai dauka; hau da lantegi ta fabriketan gertatzen diran gizonen problemak azaltzen dira, persona bakoitzaren iritziak aditzera emanaz. Gaia bada interesgarria da.

Beste aldetik begira, nobela honen euskera oso erraza da, errikoia, euskaldun guztien entelagarri egiten zaiona.

Donostiko LUR Editorialak argira emandakoa da. Ehuntaogaitabi orrialde ditu. Berrogeitamar pezetako balioa du.

Eskaerak: LUR, Editoriala. «Zutik» Villa. Arbolak Paseoa. DONOSTIA.

UNESKOREN ETXE BERRIA

Denok dakigun bezala UNESCO delakoa «Munduko Nazio Batuen (ONU)» Sail bat da. UNESCO aren egin-beharrak, itz gutxitan esanaz, munduko nazio guztietara iakintza, kultura eraman eta zabaltzea dira, partikularzki munduan diran nazio atzeratuenetara. Parisen dauka bere Etxea UNESCO delako honek, eta etxe berri ba-

ten beharrez egonik horain bere etxe berri ta ego-kia akautu berria du. Baño berri hau iakingarria izaten bada ere ni beste bidetik natorkizue ene irakurleak. Badakigu etxea oso ederra dala, ta hontan iakintzaren alde lan egiten duten gizonak biltzen direnez geroz kategori aundikoa izango dela ere bai. Etxeko aurrean munduko artista onenak beren lanak jarri dituzte, eta hauen artean Donostiko Txillidaren eskultura lan bat dago. Donostiar artista hau gaurko egunetako eskultorik oberenatakoea delako señailea da. Zorionak!

XABIER KINTANAK GARAILE

Aspaldiko kontua da, baino denentzako iakingarria. Maiatzeko lehengo egunean Konpostelako Santiago irian lau izkuntzetako POESIA SARIKETA izan zan, euskeraz, gazteleraz, gallegoz, eta katalaneraz idatzitako poesiak parte artu zezaketanak. Bilboko seme dan Xabier Kintana gazteak bere euskal poesiarengatik lehendabiziko Saria irabazi zuen.

Xabier Kintana euskaldun berria dugu, hau da sortzez ikasi etzuen euskera gero bere borondateaz berak menderatua.

Sari hau merezi zuen Kintanak ez bakarrik poesia lan honengatik, baita ere azken urte hauetako euskeraren alde egin eta egiten dituen lan eta eginahal eder ta baliotsuenkatik.

Goresmenak Kintana!

«AGIRRE SARIA» «EUSKERAZ EGINDAKO ELIZAREN LITURJIA BERRIA» LIBURUARENTZAT

Urtero bezala aurten ere «JOSE A. AGIRRE» Saria eman berria da.

Baionako «Euskal Kulturaren Alde» delako Elkar-goak Maiatzaren 19 garrenean egin duen Biltzerra berezian, «JOSE A. AGIRRE» Saaria «EUSKERAZ EGINDAKO ELIZAREN LITURJIA BERRIA» izeneko liburuari eman dio. Sari hau mila dolarrekoa da (lurrogeita mila pezetakoa). Euskal Elizbarruti (Diozesis) guztietako ordezkariiek eratu dute. Euskal Eliz barrutiak bost dira: Iruña, Bitoria, Donostia, Bilbo ta Baiona.

Sari hontaz gainera bi aipamen bereziak eman ziran: Aita Villasanteren «JESUKRISTO» liburuari, eta «MARGO EDERDUN ENZIKLOPEDIA» delakoari.

RIKARDO ARREGI ZANAREN URTEUURRENA

Ioan berri den Uztailean amargarrenean urte bat bete zan Andoaingo seme euskaltzale eta euskerazko alfabetatzearen sortzaile eta zuzendari zen Rikardo Arregi ta Aranburu jauna il zala.

Bere sende eta Euskalerriko seme zintzo guztien doluminekin ados gaude, ta denok elkar oroi eta otoitz.

BESTE EUSKAL ALDIZKARI BAT BIZKAIAN

«AGUR» izenburu honekin Bilbon beste euskal errebista bat argitaratu berri da. Ilean behin aterako da, eta bere zuzendaria bertako lege gizon dan Jose Maria Retana. Urteko ez hiru pezeta kostatzen da. Edozeinek eskatu dezake Bilbora, bi numeroko apartadara. (Apartado 2. Bilbo).

IKUSLF

EUSKAL-OLERKI SARIA 40.000 pezetakoa

«Premios literarios Ciudad de Irún
1970»

EUSKERAZKO OLERKI-SARIA, 40.000 pezeta eta urregorritzko Gaztelua.

400 beriso gutxienez

Leiaketa ontara datozen lanak, beren esku dute puntu, neurri ta gaia.

Baldintzak: Onelako txapelketetan oi diranak. Egilleak nun-nai-koak agertu ditezke leiaketara, urtez zaar naiz gazte, emengo naiz angoak. Lanak iru kopiatan idatziak izan bitez, beren ikurriz edo lamaz nabarmenduak. Beste estalki itxi baten barruan bialduko ditu bakoitzak bere izen eta etxeko zuzenbidea. Lanak, Irailaren 30rako bialdu bear dira zuzenbide ontara:

CAJA DE AHORROS DE GUIPUZCOA - Calle de Garibay, 13 y 14.

Saritutako lanak Aurrezki Kutxa Probintzialaren eskutan geldituko dira. Onak egillearen eskubideak beretzat gordeko ditu. Saritzen ez diran lanak, eska ditzakete beren egilleak, 1970go Urrillean eta Azaroan. Andik aurrera, puska ditezke eskatu gabe gelditzen diranak.

"ISTURITZETIK TOLOSAN BARRU", euskal Disko-poesia liburu berezia

Usurbilgo Joshe Anton Artzek poesia-liburu berezi bat idatzi, ta eratu du. Arze gaztea, «Harzabal» izen-goitiz euskal letretan ezagutua da. Baina euskal-letretan ezagutua bada euskal-musikan ere denok ezagutzen dugu. Izan ere, «Ez dok amairu» kantari taldean ari izan da txalaparta jotzen. Arze, poesiaren aldetik ea musikaren aldetik ere artista oso ona dugu.

Horain, eta bi arte hauei begiraturik errazago konprenituko dugu «ISTURITZETIK TOLOSAN BARRU» izeneko poesia-liburu berezi eta interesgarri hau.

Liburu hontan Arzek formaren aldetikako sentidu plastikuzkoa eta fonetika doinuuzkoa adieraztean nahi izan du. Bere poesia estetika berri batekoa eta munduan zehar esaten zaien konkretua dugu. Bere poesiak estetika berri bat nahi du sortzen.

Nik baino aunitz argi ta obeago liburu hontantxe agertzen dan Eibarreko Yon San Martin jaunak idatzi duen itzurrekoak, Prologoak, liburu honen gai, mami ta hehetasunak esango dizkizu (Prologo honen aipamen batzuk besterik ezditugu agertzen bestela luzeegi izango litzake-ta):

Euskal poesiak aspaldi utzi zituan bere lehenagoko bide hertsia, eta naharo irikitzen zaigu sorkundera begira. Mugimendu honek eraginik noski, ahalegindu zaigu Arze zeharo bestelako liburu bat egitera. Eta ez dugu zalantzarik bere nahia bete duela, zeharo bestelako hori lortuaz. Zeren ez baita erreza izanen liburu honi kidekorik arkitzea.

Lehenbizi esan beharra dago Arze euskal letretan, orain arte, ezagunagoa dela «Harzabal» izenordez ZERUKO ARGIA-n argitara dituen lanen bidez. Musika berriaren aldetik «Ez dok amairu» taldeko zatitza oraindik ezagunagoa dugu, txalaparta doinu jolez.

Literatura arloai laket gerantzat, gauza interesgarriago batek garamaz oraingo hontan: bere poesiak, eta poesian ere sorkunde kezka.

Poesia, literaturaren artea danez gero. Joxe Antonek ez du nahi izan bere lana idatzi hutsezko arterio batera lotzerik, baizik era berean formaren aldetik sentidu plastikuzkoa eta fonetika-doinuzkoa ematea nahi izan du. Batez ere poesia konkretua deritzera heldu den bide esperimental, aspaldi danik zabalduaz etorrien munduan eta honetatik landu du bere gehiena. (1) Euskeraz ere zerbait egina da era berri honetan. Baina, esan dudanez, zeharo bestelakoa izango den liburua egitera ausartu danez, orain arteko era konkretu zanean ere ez da guztiz moldatzen bere egitura. Estetika berri baten sorkunderat abiatzen zaigu Arze. Izan ere, era berri hoiak esperimentalak diranez, arteak bere hain muinetako duen sorketa du oinharri. Gainera, liburu hontan danetarik danez, lehenengo eskolak alde batera utzi gabe, beren aldamenen azken mugimenduko estetika berriak sortzea du jo-mugarik nagusia. Beraz, lehenengo eskolak zeharo bazterteke; alde batetik, oso beharrezkoak zaizkiolako, gaurko poesia jator bat egin nahi badu behintzat, haien ikastea; eta bestetik, forma batzuek asko maite ditu eta egokiak

iruditzen zaizkiolako poesia-mota batzuek hoiak bidez adierazteko; esate baterako, piperdun ezer esateko egokienetako bat iruditzen zaio triki-trixeko fandangoen moldean. Horregatik egin du «zer dala ta zer dala» (asmakizuna), «atso otsoa» (fandangoa) deitzen diran poemak. Egungo esan beharrak osokiago adierazteak bultzatu du bide berrien bila. Argi dago.

Konkrezioa, plastizidade, fonetika, ritmoa erabiltzen bai ditu adierazpen osoagoa lortzearentzat ulert errezagoa eta gutxiago aspertzeko dala-kotzat erabiltzen du. Horrela, hitzak duten fonetiku ritmoa aprobetxatzen du, papelera bertara zenbait forma emanez. Esate baterako, «txalaparta», bere zzz... hotzen ritmoa izanik; era berean, ar-emeen eskultura adierazi nahi du. Beste zenbait lekutan letra txiki eta handiz, lerro nahastu edo bananduz, ezker eta esku-biz ordenatuz. Inoiz sorginkeriak iduriko zaizkigu; zeren, hain zuzen, sorginkeriak ere badu lan honetan bere partea.

Gaiak orotarik dira: siniskeriak, izatearekikoak, gizaritate burrukarenak, ohitura zaharretakoak, ideia berrietakoak, protestadunak, eta abar; hala piperdunak eta piper gabekoak. Era berean baliatzen da eskuratu ahal dituen materialez: irudiak, sinboluak, hitzak letrak, hutsuneak, nahasmenduzko multsoak... denak sartzen dire arterio esperimental honen jokoa. Hau da, gizonak, naiz beren gizontasunetan edo naiz beren gizonkerietan. Zirkulu itxi hartan gaio-gurpil itsuai biraka bezala, azkenean, behatetik edo arraultza oskoletik hasi eta ukabilera, ukabilpean lehertzeko.

Arze-ren asmoetako liburu hau ez da bide txarra irakurtzera jartzeko ohitura zabaltzeko, zeren nornahi joan ditzake bere barna atseginez, irudimenaren argi pizkat buruan baldin badu. Irudimenezko argi gabe ez bait da poesiari ikusten.

Eibar- 1969-ko ekainaren lehenengoa.

Yon San Martin

Irudiak Zumetak egin ditu. Soinua Nuñezek-konpondu du. Liburuaren arkitektura Mikel Garañek eratu du. Mikel Forkadak zenbait burutapenak ekarri ditu. Fotoak Zabalak ateratuak dira. Grabaketak Otxoa, Larrukeri ta Jose Luis Zabalarenak dira. Luis Zulaika ta Xabier Market produktoreak izan dira. Liburuaren aldetik Zarauzko «Itxaropena» Moldiztegia eta Musikaren aldetik Columbia (Disko Editoriala) izan dira prestatu eta argitaratu dutenak.

Hor goian liburu hontan parte hartu duten jaunen erretato-zerrenda da.

(1) Mugimendu honen jokoren berri jakin nahi duenak irakurri beza **Esperimentalismoaz**, poesian, J. Azurmendi-rena, **Jakin** aldizkariaren 34-garren zenbakian (1969), 61/71 horrialdeetan.

ESAERA ZARRAK

Naparroa-ko erranairu edo esaera zar aunitz, aspaldi, bildu nituan.

Sail bat Euskaltzaindiaren **Euskera** aldizkarian eman nituen ordun. Urte asko dira. Ordun irakurri zituztenen batzuk bizi litzake oraindik.

Baiño gaurkoan, zorionez, gure Aldundiak ba-du bere aldizkari euskerazkoa Gure izkuntzaren alde «Principe de Viana», doarik, euskal-errietara bialtzen dizutena.

Naparro-erria, noiz iratzarriko zara zure lo-zorroitik?

Euskera galtzian, Naparro-erriaren izkuntza galtzian, zuste al duzu, deus ere galtzerik zer duzula? Odoletan zoaz; odol ixurtzen ari zara; bizia galtzen ari zara!

Euskera, gure aitzineko guzien bizigarri ez al da izan? Lotsagarri, alkegarri izan al dira gure Naparroaren bizi guziko gure guraso ziranak? Ez-duzu aut-ematen edo etzera oartzen, aien izkuntza zapuztutuzian, seme-alaba esker onik gabeko bat egiten zara? Edo uste alduzu, zure aitzinekoak buru gabeko gizon-emazteki batzuk zirala? Alako iduritu txarrean ba-zeunde, begiraldi bat emaeizu onako esaera edo erranairu zar auei, Zure lo-zorroitik ea ateratzen zaran.

Mezkiritz-kotatik sail bat polita emanen dizut lenik.

Examin onei, z nondik yoaten zaio kea? Esan nai du: Etxe oni, etxealde oni, z nondik eldu zaio bere ondarena? ondatzen ari da-ta. (A.N. Mezkiritz).

—oO—

Etxe bateko kontrariorik andienak: kea, itexure eta etxeke andre mozkorra. (A.N. Mezkiritz).
Orra, ordun, nondik eldu deiken (diteken) etxearen ondarena.

—oO—

Etxe ortako andreak, ezta etxametik kea ere ez du utzi nai atratze (ateratzen). Esku estua, esku murrizta zala esan nai. A.N. Mezkiritz.

—oO—

Orrek eztu bere etxea arriketiko, ez. Al guzia bere etxearen alde egiten duana. Arriketu, arrika eman.

—oO—

Iretsi zar bat aiz. Deusekin asetzen ez danaz.

—oO—

Mazteki (emakume) yardukilarien ele ederrez ez fie. Emakume tzarragandik eta arrotzaren elezurietatik gurasoan esanak gordeko gaituztela dio Jaunak (Prov. 6,24).

—oO—

Etxeko kontuek euspean estal (estali). Etxeko zatar zikiñak etzazkio iñori erakutsi bear.

—oO—

Mazteki (emakume) kontulariek, maiz bazterrak zikin. Itzontzia, maiz alper.

—oO—

Gure etxeke nausiak, ezpaña makur. Nagusia asarrekor daneko, edo asarretu zaigu, esateko.

Badakik bai, zein aritzei darion ezkurre. Laguntzalle onari el-tzen dionaz esana.

—oO—

Sekule ez aiz zentzuen sartiko. Gauzak arinkerian egiten dituenaz esana.

—oO—

Arbolario tzar bat da. Ergel utsa danaz, edo diran baiño aundiagoak esanaz dabilena.

—oO—

Bi begiek baño geiago ikusten dute lauek. Beste iduri zaiena jakitea, ez da kalte.

—oO—

Eure eltziak gatz-ematen asten aizelaik, ikaskon (ikasiko dun) bai nola bizi. Gaztea ez da oartzen gauza bakoitza zenbat gostarik izaten den, bere lanaz gauzak erosten asten daneraño. Orduntxe ikasten du neurri ibiltzen.

Intzar Damaso An.



'LUR' izeneko Editorialak bidaldutako Agiria

Donostia dagon «LUR» delako Editorialak bere asmo, euskal liburu eta euskeraren aldeko egintza ta lanak adierazteko, eta euskeraz irakurtzeko zaletasuna zabaltzeko, orri bat Euskalerriko toki askotara bidaldu du.

Interesgarria gure irakurleentzako izango delakoan argitaratzen dugu:

**ORAIN ARTE OBRA
GUTXI IRAKURRI AL DUZU
EUSKERAZ?**

Ziur asko erantzuna, oso gutxi irakurri duzula izanen da.

Gutxi irakurtzearen arrazoia, euskera idatziaren zailtasunean bilatu ohi dute zenbaitzuek.

GUK EZETZ DIOGU. Gai gutxi dago euskeraz irakurtzeko eta interesgarriak gutxiago, hori da egiazko arrazoia.

Guk gaurkotasunez beterikako

liburu batzuk proposatzen dizkizugu eta prueba, gutun honekin batera dijoakizun katalogoa da: soziologia, ekonomia, erlijioa, politika eta literatura. Neurritz sakel liburuak bezalakoak, 130 horrialde ingurukoak, ahalik eta errezenik irakurriak izateko eskribitu eta publikatuak.

Editorialaren gaurkotasunaren prueba, katalogoa bera duzu.

Ikusi duzu inoiz ere euskerazko liburuetan, grafiaren aldetik azal hauek baino aurrerakoiagorrik? Ikusi duzu editatze plan bat horren seriozki eramana, horren eskritore gazteez osatua eta diskusio gai gehiago sor dezakena?

Prezio neurrian dago bakarrik gure editoriala besteazpitik. Guk ez dizugu produkto bat saldu nahi, baizik eta ilero liburu merke, ondo presentatuak interesgarriak eta **ERREZAK IRAKURTZEKO** eskeini.

Inprentaturik gabeko kulturari gabe, ez da posible hizkuntza ta

desarrolatzea eta gure iritziz era honetako kultura bat, zabaltzeko duena da, ez minori batetako pentsatuz egina.

Espero dugun bezala, gure editorialera suskribitzea interesgarri ba-zaizu, bidal zaiguzu, otoi, gaur bertan suskribidore txartela, behar bezala bete, zeren eta suskribitzen diran lehendabiziko 700 harpidedun berriei **LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA** hutsean emanen diogu.

LUR, editoriala.

Orri honekin batera liburu-katalogo bat eta suskribitzeko txartela doaz. Baina txartelik ez izanik. Irakurlea, ezduzu axolik izan behar, bidaldu zure izen ta deiturak (ape-lidua) LUR Editorialaren zuzenbidetara: **EDITORIAL «LUR»**, Villa Zutik. Paseo Arbola-Apartado 755. SAN SEBASTIAN.

Se autoriza la copia para la investigación.
© GOBIERNO DE NAVARRA

Joakin ALDABE Jaunari agur t'erdi

Agur sutsua, adiskidea,
Bidaltzen dizut Praga'tik,
Zure olerki maite-maitea
Irakurtzen dut gogotik.

Euskera gozo paregabea
Maite dut bihurtz erditik,
Ta Euskal Herri zoragarria
Agurtzen gure hiritik.

Gaixorik zengozala berriak
Naigabetu dit gogoa,
Baina orain Jaunari eskerrak
Daukagu zure bertsoa.

Zure eskutiz maite maiteak
Jasotzen ditudanean,
Nabaitzen dut poz handia
Zure lerroak irakurtzean.

Aldizkari hontako 50'garren zenbakian euskal olerkari ospatsua da Joakin Aldabe jaunak niri eskeinitako olerki samur bat aurkitu ta ats ginez beterik irakurri dut. Nireganako bere adiskidetasun sakona bihoi-bihotzetik eskertzen eta batean euskerazko eskutiz luze bat bidaltz diot. Bere bertsoetatik ikusten dugu olerkari trebea dala euskaltza sutsu hau.

Har itzazu, adiskide mina, nire zorionik beroenak eta Jarraitu be zure lanean gure euskera maitearen onerako. Gora, euskera, euskaldun hizkuntza eder-ederra.

Praga'tik 1970'gko Ekainaren 3'ean.

NORBERTO TAUER

IKASI, MIKASI...

SEIGARRENETAZ, GEIXEO...

Munduz mundu gabiltzenok, nonai ezagun eta adiskideon bat badugu. ¿Zerorri erri izango gure, nafarroak bakarrik, ni ibili naizenak? ¿Iruetan ogei? ¿Lauetan ogei? ¿Jainkoak ogei? Askotaz, azturik nago, ta azturik izango naute. Bano, anapost edo ogei aiaz egondu naizenetaz, ez da ain erraz azutzera. Oietako batetik, juan den asuan, idatzi zidaten karriaxo au:

«Gure adiskide aundi ta beneragarri, Aita A. Astiz Arregi: Datorren astelenin, juango da beorregana gure bixente. Meza laguntzale zenin, beorrek POIXOLO deitzen zion. Oain POIXOLO deitu bezaioke, izurrikzko mutille einda dao ta. Jainkoai eskerrak, oain arte biñepin, oso txintxo ta oitura onekoa da gure seme iaztana. Urin bizpiru aiaz ez bada (terriko testetan, iotitan eo...), iande guzitan, gabeko amarretaako etxin daukiu; aste egunetaz, ez dao ze esateik. Itz zakar bat ee, aundieta-koik biñepin, ez diogu oaindik aithu. ¡Arraioa!, ¡Rekono!, ta oiakoen bat, esateo azindaakin daalinen, baño Jainkoan kontrakoik biñepin, ez. ¿Zetaako biatzen duun beorregana? Soladutaa, ¡Atrikaa! juan beo gizaajoa, ta bildurrez gaude, etxetik aparte denin, gaiduko ote zaigun. Beorrek dakin bezala, konseju batzuk eman bezazkio, etxea garbi-garbi itzuli dedin. Zapataneko Maalentxokin izketan asi berriazen... ¡Onek ee meezi do mutil garbiakin ezkontzea...!

Beorretaz asko gogoratzen den, MARIA ANTONIA (Maanthoni).

Bere amak gaztigatu zidan bezala, juan den astelenin, egondu zen neregagana, nere meza laguntzale bixente. Berari agur egiteko txutitzen asi nintzen ezkerro, jarri nuen martxan nere manetoronoa, ta, ara emen, gure elkar-izketa:

—Jainkoak diola eun on, jaune.
—¿Zu, oneraio, Bixente «Potxolo»? Orain, «Potzolo» deitu bearko ditzut, mutil biñepin eginda zaude ta. Etzian, ¿denak ongi?
—Ongi, Jainkoai eskerrak.
—¿Ta?
—Soldadutaako, Afrikaa, tokatu zait, ta beorren konseju batzun bille nator. Nee ama bildurrez dao, gaiduko ote naizen...
—Garai obeagoan, etzineken etorri. ¿Ez duzu ikusten, emen, liburu pillo au? Auetan usmoka ari nintzen, «IKASI-MIKASI»n, Seigarren Agin-kuaz, nere irugarren idazkaitxo eskribitzeko. «Principe de Viana»ko izuzalei esan bear niotena, zuri esango dizur. Ta, gero, zuri esaten dizutena, aiei esango diotet. Izenak eta, aldatuta, ¡oi, jakiñe!, oiako atzipeak (recursos) baditugu ainbeste urtetaz izparringietan idazten ari garenak. ¿Badakizu, zer izenburu jartzeko asmoan negon nere iantxoari?
—¡.....!
—«EZKONDU ARTE, BIZI GARBITASUNEAN».
—Ez dao gaizki. Konseju orren bearrin gaude oiango gaztik.
—Bixente: zu gizon eginda zaude, ta, gizon bateri bezala mintzo bear ditzut; etzazula esan gero: «¡Argi eta garbi, esan balidate...!».
—Gure errietan ee, iya ez gaude zozokumik bezala. baño beorrek obekio jakiñen do ze daon mundu ortan...
—¿Zu baño zarrago naizelako?
—Ainbeste liburutun, ikasi izaingo zun...
—Asiko naiz, bada, zuri munduko arriskuetaatik alde egiteko, gertaketa tamalgari batekin. Emen daukat, Tihamer Toth, Ungriako eskritore famatuen liburu bat. Liburu ontan, irakurri det kaso au. Gizon bat juan omen zen Berlin go Estaziora, ez dakit norako billetearen eske. Zenbat ordaindu bear zuen ikusi zuenean, bota omen zuen leyo-zuitoro eunduroko bat, eta itzuli zizkioten iru ogeiduroko. Aietako batian, agertzen omen zen, eskuz idatzita:

«OLAKO BATEN TRUKE, NIK ATZO NERE ANIMA SALDU NUEN...»
Seguro aski, garai txarron batian, erori zen putzuan ondoraño, neskazantar oietera joanda... Biaramonean, lotsaz beterik, damututa eta erdi erotuta, idatzi zuen ogeiduroko artan: «OLAKO BATEN TRUKE...».
—Noizpait aithu nun, badeela ziudadetan olako zakarkerik...
—Ta, zakarkeri oieteraño erortzen da pausoka, pausoka... Lagun gaiztoekin asten bazera, egunon batez eramango zaitute dantza edo zine zakarretara, beste egunon batez esango dizute: «gaztedia, gozatzeko dela», ta...
—¿Ain pekatu aundia da ori?
—Ikaragarria. Lizunkerio oietan loitzen dena, ez bakarrik Jainkoa ofenditzen du, baita ere kalte egiten du bere buruari eta bere ondorengoiari. Ara zergatik, Jainkoak mundura bidali dituen kastigu aundienak gizonen aragkeriaz izan diren.

—Juan den illeeteko «IKASI-MIKASI»n, beorrek jarri zitun banaka batzuk. Ortaz ongi siñestatuta nago bada.
—Orain, gizona zeran ezkerro, beste arrazoi bat. Uste dezagun, zu Afrikatik etortzen zeranean, esaten dizutela, Maalentxo...
—¿Beorrek ee, ba al daki?
—Bai, badakit, zure amak esan dit eta. Baño ez uste, andregai duzulako, erristan egin bear dizutela. Prisarik etziñun, baño, alde batera, obe duzu neskatz eder eta garbi orretaz egunero oroitzea, mutil askoren zakarkeritik alde egiteko. ¡Berak, ere, merezi du zuk berangandik nai duzuna!

—Oi, arrazoiyekoa da. Jainkoan aginduak, ez dire bakarrik emakumeentzat, baita gizonentzat ee. Baño, geinin, neskatzek, been jantzi moduakin, tentaldietan jartzen gaitue.
—Kaxkariñ oiei, etzaiozu eskatu arrazoirik. Norbaitek esan zuen: «Emakumea, kalpar luze ta gogoramen motzeko animala bat dela»... Berak —ala diote biñepin— ez dute gaiztakeriz egiten, baizik lenbaitlen senargaie arrapatzeko, ta bestiai aurrera arrapatzeko.
—Nik ee, oi usteot.
—Baño gaixoak, ¿ez dakite, arinkeriz eta lizunkeriz bakarrik ezkontzen direnak, gero ere lorez-lore ibilliko direla? Ezkontzeko, bear bearrizkoena da, EGIZKO MAITETASUNA: BATEK BESTIAN ONA TA SEMIEN ONA NAI IZATEA! Ezkontzen artean ere, ez uste beti jai dela. Egun illunak ere badire maizeki (bietakoen bat gaxo dagoalako, edo elkarrenkandik urruti, edo aurtxoan bat jaiotzeko edo jai berria delako...); kaso oietan, andregaiekin edo edozeñekin, beti BERE egiten oituta dagoanari, ezin diozu eskatu...

—Aitzen det, jaune, ze esan nai dun beorrek.
—Iya, bada: ¡Jainkoan aurrian bezala, zure errian orain arte bezala, soldadutatik itzuli arte, EZKONDU ARTE... bizitzen zeran!
—Jainko lagun, alegiña eingoet.
—Poz aundia emango diozu, ez bakarrik Jainkoari, baita zure aitamai, zure emaztetarako berezitu duzun Maalentxori, eta, baita ere, zure aspaldiko adiskide naizen oneri.

A. Astiz Arregui

BAZTANDARREN BILTZARRA

Santio aintzineko igandea izan da aurtengo «Baztandarren Biltzarr» opatzeko eguna. Aurtengoarekin zazpigarrena da eta orai arte izan den aundiena. Baztandarren besta honen errete aundia du eta bere fama Euskal-Herri guzian barreiatua dago. Egun hontan millaka yende bitzen da Baztango hiri nagusian, denak egun goxo bat igarotzeko naikeriarekin etortzen baitira, Baztango ballearen edertasuna ikusi bidenabar.

Egun guzia zerua goibel eta ilun baina euriaren bildurrik gabe, ipar-lahoekin zerue muktuz denean ezpaitu aise erasaten. Egun goxo batere berorik gabe eta besta egiteko aute.

Urtero bezala goiz goizetik, txistulariek Elizondoko karriketan barna itzulia eginik beren soñu alaiakin yende guzia airetu zuten. Bederatzieta berte herrietakoak ere ongi ernaturik Elizondoko karriketan zabilzen, bizkitartean karoak biltzen ari zirela.

Bederatzi terdian eskuarazko Herri-Meza. Eliza bete bete leku uts bat ere agertzen etzela, alderko bazter batean Nafarroako eta Baztango Aintzindari Nagusiak han zaudelarik. Amar apez baztandar Aldareko Mai Sainduaren inguruan eta Mezari asiera eman zitzaion. Irakurgaiak, kantak, otoitzak, itzaldia eta bertsoak denak hunkigarriak izan dira. Baita ere Errenderiko dantzari txikiak sagara ondoan eginikako dantzaldia zoragarria izan du zen.

Klemente bertsolariaren azkenengo bertsoa agertu behar dut. Zure sortzeaz libratu ginen gendun orijinaletik. Bai eta ere loturik geunden diabruaren katetik. Barkamena eskatuz eskerrak Jesus baztandar danen partetik.



PILOTARIAK

Berriz berte napar bat txalpeldun. Joan den Ekainaren 14'ean Tolosako frontoian, bigarren mallako txapelketaren Azken-Partida yokatu zuten. Alde batetik Oresa errazkindarra 23 urteko mutil gaztea eta Del Val errioxatarra 29 urtekoa, bertetik. Naparra paxa urdinarekin eta errioxatarra gorriarekin eta trabesak hunen alde 100-90 eta 100-80 ri, hau guzia partida hasi aurretik. Gero lenbiziko sakea errioxatarrari suertatu zitzaolarik orduan eta gehiago haren alde 200-130'ri uyu egiten zutela. Partida gisa hontan gertatu zen:

Lenbiziko tantoa errioxatarrarentzat baña errazkindarrak berehala berdindu eta bai bi puntu gehiago. 3-1 urdin. Gero Del Val'ek berdindu eta berte bi gehiago bere alde 5-3 gorri eta trabesak 200-90'ri gorriaren alde. Partida atakatua da bi alderdiak berdintsu daudela. Adosteak gero, 5-5. 6-6. 9-9. 12-12, eta

Zure bitartez sartu gaitzen zeruetako atetik.

Urtero bezala Meza ondoan izan ginuen karrozen ibilaldia, gisa hontan moldatua:



Lenbizikoak Baztango txistulari Maurizio ta Pelix, Balleko ikurriñarekin batean eta hauen ondok Oberenako dantzariak. Gero Almandozko karroza, «Arkaitza» erakusten zutela; Arizkongo iru karroza, «Zikiro-Yatea», «Aizkolariak», «Zare-egile»; Azpilkuetakoa, «Espartingilea»; Berroetakoa «Kitoak»; Elizondo zazpi karroza, «Ostatua», «Mikel Deuna», «Auspoa», «Aizkolariak», «Ikastola», «Kordiona», «Garreak eta Uzterrria», «Gaztañak erre artian», Gero Lizarrako dantzariak; Erratzuko karroza, «Kaiku-egile»; Gartzangoa, «Beien-eia»; Errenderiko dantzariak; Iruriteko «Baztango Gazteria»; Amayurkoa «Arto Errota»,

do zazpi karroza, «Ostatua», «Mikel Deuna», «Auspoa», «Aizkolariak», «Ikastola», «Kordiona», «Garreak eta Uzterrria», «Gaztañak erre artian», Gero Lizarrako dantzariak; Erratzuko karroza, «Kaiku-egile»; Gartzangoa, «Beien-eia»; Errenderiko dantzariak; Iruriteko «Baztango Gazteria»; Amayurkoa «Arto Errota»,

eta azkenik Iturengo «Zanpatzar» deitutako gare-yoleak.

Beti bezala Karoza guzien aintzinean, txistulariak, albokariak, «triki trixa», Kordionistak eta gazteria bertzetan bezala karrozen inguruan dantza ta yauzi, irrintzina ta bozkarioa. Aurtun karroza politik agertu dituzte eta zenbaitzuk mami aundikoak Iruritarrek agertutakoa bezala, horrelako idazkiak agertzen zituztela: «Baztanen lanik ez Gazteria iges» «Amets gozoa, kanporatu beharra egi zorrotza». «Baztanek nola irauñ gazterik gabe?»

Karroza hoberenentzat agindutako Saria Amayurkoa irabazi zuen. Amayurtarrek erakusitako «Arto Errota» guziz ederra zen, egiatzko errota bat bere errotarriekin, arto irinekin, eta errota zaña, zakue irinez betetzen bere zorro-makilekin. Zorionak amayurtarrei.

Ibilaldiaren ondoan plaza zaharrean euskal-dantzariak aritu ziren eta goizeko besta bururatzeko, Baztandar gazte ta zaharrek mutil-dantza ederra dantzatu zuten.

Gero bazkaria, mila ta gehiago bazkaldoan beti bezala, kantu, dantza, soñu, itzaldi ta umore ona. Gero Elizondoko karriketan gazteria aski panparrotua bere bozkarioa erakusten zuen. Kanpotar aunitz arratsaldean, egia erran baztandarrek ez ginen ageri ere aintbertze kanpotarren artean. Erratan dutenez egun hortan bildu onen ziren Elizondon 20.000 yende ta 70 txistulari.

Arratsaldeko zortzi terdian Biarritzko «Oldarra» deitutako dantzari ta kantari famatuak, Euskal-Herriko sei eskualdetako dantzak agertu zizkiguten. Mundu bat yende bildu zen «Oldarra» ikustera eta denak xoraturik Miarritztarrek erakutsi zizkiguten dantza ta abestiek. «Oldarra»-ren ohoretan eginikako esku-zartak nik uste Lapurdin aditu zituztela.

Zazpigarren «Baztandarren Biltzarr» ospatu da eta aurtengo izan du denetan aundiena. Ikaragarriko yendeketa bildu da eta hemen ikusi ditugu, Iruñe, Lizarra, Nafarroako leku guzietakoak, Donostia ta Gipuzkoakoak ere.

Besta ederra izan da baina guzien gañetik aipatu dezagun MEZA, elizkizuna izan baita ederrera eta hunkigarriena, eskuara yaun ta yabe zelarik. Berte gañerako besta eta gauz guziak, FOLKLOREA eta bertzerik ez. Beti ere egun ederra ospatu ginuen eta yendea kontent dago. Zorionak bestaren antolatzaileeri. M. IZETA




tegi ta Oresa. Zorionak bi pilotariet, zuek ezarri baitduzue Nafarroaren izena ohorezko lekuan.

M. IZETA



Naparroak bi Txalpeldun ditu, Re-

ERRIZ - ERRI



ARAITZ

Motellek... auxe giroa belarreta-ko, Garagarril-asiera ontan izan deguna... Moto-segadoraz ongi baliaturik, ebakialdi ederrak egin dira... ontzeko lanak ere bai, ta... amaika gurdi-belar, usai gozo-gozokoak, sartu dira Araitz-eko mandio ta ganbaretan.

Nozpait, eguzkia berotzen asia degu ta ez gera asarre araitzarrok; goierritar naiz beterritar... Esnearen prezioa zerbait altxako al digute, gure poza sendoxeagotzeko. Egia esan; mixeri-prezioa da orain esneagatik gure eskuetara eltzen danta...
—

Gaintze-ko «Otselizarraga»ko etxe-koandre zarra il da ill ontan. Goiko Jaunak dezala altxo gozoan Axuntzion zanaren anima. Aren seme-alaba ta aide guzietan, emendikantxe, gure biotz-miña agertzen diegu, araitzarrok oi degun esaera zarraren bidez: «Osasuna enkomendatzeko»...

Or ikusi ditugu jua diran aste oietan «injenadore» edo alako gizon batzuk, Araitz-era Diputazioak erakarri bear dun argi-electrica berriaren posteak eta ari lezeak, nondik nora bear duten, neurtzen eta txuxen markatzen.

Ez dek auxe berri makala araitzartrontzat. Amaika etxetan, aurrerapen onen zai gaude, bear diran tresnak (otz-armarioak, erropa-garbitze-koak, beiek-jeitzekoak, eta abar) Araitz-en ipintzeko. Orain arteko krixallu moduko elektrikakin, aurre-

rapen eta erreztasun aundirik ezin bai-zitekean emen...

Ongi ta pozik emen dira gure artzaiak, Aundi-mendi ta Aralar-ko larrezabaletan. Ongi belarrez, ta ongi giroz. Naiko gazta egiñaz; aurki ille-mozteari ekiteko asmoz; axuriak bikain aunditzen ari dirala ikusiz... pozik eta alai gure artzaiak mendimendian. Bejondaiela!...

Aurki Sanfermiñak... Azkarate-ko pestak... Ez degu ingurutxorik ikusiko, Sarasola zarra urtez ongi kargatuta, txistu jotzeari utzia degu azken urteotan-da... Baña, ez ote du Askaratek, Tolosa aldetik-edo, beste txistulari jatorren bat etorriaziko, bilduko dan gaztediari dantzaldi eder batzuek eginarazteko, legezarrako oitura ederrak geiegi galdu gabe?

MALLO-PEKO KUKUA



LESAKA


Berri on bat, bertze aunitzen artetik. Berri on bat, lendabizi: gure pillota lekua, gure frontoia tapatu digute; eguzki ta eurietik gerizpetu. Hori degu gaur gure berri ona.

Aspaldian bazegoan nahia gure artean; aspalditxo ere gogo ta asmoak erriko agintarien artean. Ta azkenik, orra or, egiña. Albaro jaunaren fotografian ageri da txoko aldea.

Aundia gelditu dala ezin degu erran. Bai, ordean, polita ta egokia Lesakako erriari, etxe bateri leio argi bat idekitzen zaionean bezelaxe. Polita ta egokia.

Berrogeita-amar urte Lesakan pi-

lota leku hau egin zalarik. Ta, berrogei-ta-amar urte hoi en buruan, tapatua arkitzen degu. Illabete batzuek lan guztiak. Ezda siñestutzea erraz, gehonek ikusitakoa ez balitz. Eskerrak millaka, kupiderik gabe!



Erriko besta haien aintziñeko igandez, lesakar gaztedien eguna. Erriko «Beti-Gazte» alkarteak antolatuta zegoen. Egun polita, benetan, egualdia lagun genduela. Ttuntuna, lasterkalariak, «futbol» jokaldia zarrak gazteen aurkan, soñu ta dantzaz...; dana oso egoki. Edo, dana txoil ez, noski. Auzotarren soka-tirari buruz, zerrikarri kokorra egin zuten azkeneko orduan. Baño, ordaindu dute. Ta, ez geiago odol txarrerik. Danok berriro adiskide!

Santiago egunez, urtero bezela, Banarta izeneko zelaian, Nabaztarraren bilduera. Egun ortaroko auzoko neska musika leku lirain bat gertatuta zeukaten. Mutillak, gere aldetik, bazkaltzeko tresnak, iana ta edaria lasai eraman genduan. Goiz-goiztik, altsaferoak ta zalaparta. Eguardian, auzo-bazkaria, sororan, epel-epel. Illunabar aldera, bertsolariak ta soñua, umore ta sasoi ederean.

Auzo bat, Santiago egunez, zelaitxo batean, alkartuta. Nabaz auzoa, Banarta zelaian.

ANTHON



ETXARRI ARANAZ

Garagarrilaren 22-an hil zan istripuz, gure lagun haundi, euskaltzale jator eta ikastola batzordekoa zan Barandalla ta Beltza-tar Patxi. Goian bego. Gure oroi-pena bere emazte, seme, alaba, ama, anai eta sendi guztiak. Gure otoi-tza bere animaren alde.

—oOo—

Uztailaren 4-an ikastolako haur guztiak, Olazitakoekin eta beren guraoekin batera eskurioso eder bat izan zuten Urbasa mendira. Gure Patxi zanaren oroimenez meza izan zuten. Meza ondoan, aurretik bezela, txistuen doñuetara haur guztiak dantzatu, abestu eta jolastu ziran. Gurasoen gogokoa izan zan haur guztiak haundiekin batera, ikastolan egon izan balira bezela jolasten hasi ziran. Eta naiko josta eta barre egin ondorean, atsalde bukaeran itzili ginan bakoitza bere herrira.

LAKUNTZA

LAKUNTZA

Lakuntzako errian, denbora batcan, dena euskeraz itz egiten zen. Atzeneko urte oketan asko galdu da eta pixke ta pixke dena galduko zela uste giñuen. Baño goartu gera, gaurko gaztetxoendako lotsa izango zela, euskera gure eskuetan iltzen uztea. Onengatik amazpi edo ogei neskato biltzen gera ilusio aundiarekin, «Kili-Kili lan ta lan» egiteko. Ari gera leitzen eta eskribitzen ikasten eta itz egiten ere asi gera pixkabat. Gauza bat ikusten

BAZTAN

Ikastaroa

Kursoa bukatu da eta ikasle eta irakasleek atsedean garaia ardietsi dute. Euskeraren ikastaroak ere izan dute beren lekua neman Baztanen eta Elizondoko eskoletan aurrean artean emanikako euskerazko ikastaroak uste ogu onuragarriak izanou direla. Ogeitabi multtiko eta ogeitabederatzi neskattiko euskera ikasten, honenartean zenbaitzuk euskaldun garbiak, bertze pizka batzuk erdi-euskaldun eta berze gainerako gehienak deus ere etzakitenak. Denak zerbait ikasi dute eta badut uste irakasleen lanak eta ereintzak ezdirrela alperrikakoak izan.

—oOo—

«Escuela Laboral» deitutako eskolan aurten dituzte euskera-ikasketak, baina egia erran aurtengoak ez dute igazkoak bezaiko arrakastarik izan; iende gutxiago aurten eta ikastaldiak ere probetxu gutxiagoak. Zaletasunik ezpadago ez da deus egutekorik eta, zertako balio dute itzak eta alfersoiak gero eginkizunetan deus agertzen ez bada?

—oOo—

Lamierriteko eskolan ere bada zerbait arrankura eta aurten ez omen dira gauzak ain ongi joan. Badirudi zenbaitzuk deskontent daudela, eta arrazoina ere berekin daukatela.

Datorren kursoan guzien gainera Lamierritera bi andereño baztandar euskaldun ekarri beharra dira, irakasle erdaldunak alde batea utzirik. Negargaria da.

Lamierriteko eskolako aur euskaldunak erakusteko, irakasle erdaldunak ekartzea eta gainera hauek ezpaitute ongi erakusten ahal, aurrekin elkar ezin ulertuz, iragaitzen baitzaiete kurso guzia deus probetxurik gabe. Datorren kursoak gauzak ongi zuzendu daitetze bi andereño baztandan euskaldun ekarri ezgeroz.

—oOo—

Datorren kursoak asita izango dugu Elizondon Ikastola bat. Ikastola hau 3-6 urteko parbulontzat irekitzen da eta NAFARROAKO DIPUTAZIOKO «INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA»ren babesean dago. Berri horrek asko poztu gaitu eta gehiago oraindik iakin dugularik ikastolako andereñoa baztandarra dela. Orain guraoen zaletasuna ager dadiela beren laguntza osoa emanaz. Gauzak bide onetik goan daitezila, hori desiratzen baitdugu biotzaren erditik.

Igaz bezala aurten ere badugu Baztanen aurrenarteko IDATZ-SARIKETA. Sorgin-kontu, ele zahar, eta historiok dituzte egin beharrak eta ziur nago aurtengo leiaketa honek igazkoa bezenbat errete izanen duela, aurrak ikasten ari dira eta badut uste aurten lan politagoak agertuko dituztela.

Aur hoietan dugu Nafarroako idazleen etorkizuna eta itxaropena.

IDAZ-SARIKETA hau «INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA» antolatzen du eta Baztango Balleko Etxearen laguntza dauka.

Entzule

BERA DE BIDASOA



Lengoa Lesakan. Sarre, Etxelar ta Arantzan. Gero Yantzín. Oraingo hontan Bidasoa'ko Bera errian alkartuko gera Bost Erriko lagunok, illabete onen 3'tik 9 alderaño, erriko bestak bai dira!
«San Esteban» bestak Bera'n.

(Talletxea jaunaren fotografia)

dugu gaizki: neskatoak bakarrik biltzen gerala; mutikoak, «Kili Kili lan ta lan» egin baño naiago dute balonakin olgutzen ibili. Uste dugu noizbait konturetuko direla zer kalte egiten dioten euskerari eta Euskal Erriari.

MARTIARENA JESU ETA FLORES LURDES

Kontu kontari: *Lakuntzen, gari denboran, berandu arte egiten du lana gendeak fabriketik atera ondoan. Bein eldu ben zen, illundutakoan aite semeak etxera. Aite oso kalboa ben zan. Soru baten ondorek pastean oraindik lanean ari zela goartu ziren eta esan zioten «Gabon, asko ikusten al da». «Oso gutxi, erantzun zioten, baño puska txiki au egin gabe ez utziatik emen ari gera jo ta jo». Orduan aite kalboak, txapela kendu eta esaten diote: «Aprobetxatu orain, illargia atera duk eta».*

Gamboa Roxarito.

ARBIZU

Herriko jaiak aste bat iraun dute. Aste hau ongi beteta egon da. Bi egun t'erdiz «vaquilla»k izan ditugu. Izar-ko zezenak ziran ordu alaitu batzuk igaro arazi zizkigutenak. Jai hauetako ekintzak olan banatu ditzakegu egunez-egun:

Jaien hasieran, hau da 23-n, S. Juango ermitan bezperak izan ziren ta hauek bukatu ondoren erromerian jexi ginan. Herrira iritxi gitanen suak saltoka hasi ginan.

S. Juan egunean herritar gehientzuenok S. Juan-go ermitan izan ginan meza entzuten.

25-n herriko gazteentzat zerbait antolatzeko asmoa zegoan, bainan asmotan gelditu ginan.

26 ta 27-n zezenak izan genitun.

28-n igandea zan ta egun ederra izan genuen. Egun horretan euskal jai antzeko bat antolatu genuen. Goizeko amabi t'erditan zezenak izan ziren. Hauen ondoren bertsolariak hasiera eman zioten saioari. Bi bertsolari izan genituen: Arozmena ta Lazkano ain zuzen ere. Nafarra bata ta giputxa bestea. Hasiera ona eman zioten ta ongi ari ziren bainan... saio erdi inguruan zer edo zer erre zitzaigun ta berean utzi beharrean arkitu ginan. Orduan ari ziren berotzen. Orrela bada goizeko saioa bukatzeke gelditu zen.

Arratsaldean ekintza jatorra izan genuen. Iruña-ko dantzariak, Casteizko abeslari «Arala» taldea ta lehen aitatutako bertsolariak batera jardun ziren.

Dantzariak eman zioten hasiera saioari ta bereala abeslariak bi abesti abestu zituzten. Hauen ondoren bertsolariak abeslariak bere abestietan ikutu zuten gaia sakondu zuten.

Hau da gai berdinean aritu ziren bertsolari ta abeslariok. Uste dut, inun ez dala egin orrelakorik. Ta mota honetako ekintza garailu irten-go dalakoan nago. Pozik hartu zuten entzuleak. Lau gai erabili zituzten bertsolari-abeteslariok. Ta gaitik gaira dantzariak dantzatu ziran.

Jai ospetsua benetan joan zen igandekoa. Jendez gainezka zegoan Arbizu-ko enparantza.

Eskerrak eman beharrean arkitzen naiz gaurko honetan. Batez ere, jai hau gerta zedin lan egin dutenak eskertzen ditut. Hauen artean: «Argi bidea» taldeko gazteak ta Urdian-go apaiz dan Satrustegi. Eskerrak biotzez, jai hau gerta zedin lan gogorra egin duzutelako. Gogoan dut Aldundiaren laguntza ere ta aldizkari honen bitartez eskerrak ematera natorkizu.

Batasunari buruz solasak

Oinarrien landatzen lagundu nahiz, eta gutartean zorigaitzoz, hainbeste ugaritzen diren azalezko eztabaidetan sartu gabe, problema honen gaineko zenbait ikus-molde azaldu nahi dugu.

Batasuna aipatzerakoan, mintzairak euskalki batzuk badituela adierazten da.

Joan den mendeko Luis Luciano Bonaparte zenak, lehen aldiz euskeraren euskalkiak aztertu zituen, eta gero mapa batean paratu. Jakintsu harek honelaxe finkaturik utzi zituen: bizkaiera, gipuzkera, irar-goi-nafarra, ego-goi-nafarra, lapuritarra, sortalde-be-nafarra, sartalde-be-nafarra eta zuberotarra. Ondotik Azkue, hil artio Euskalzaindiko zuzendaria izan zenak, goi-nafarroako biak batu zituen, bai eta be-nafarroakoak ere; eta bestalde, erronkariara (legun zorigaitzoz hilik dagoena), euskalki mailarat igan zuen. Honela, zazpi euskalki gelditzen ziren, eta oraindik ere klasifikazione hura funtsean ontzat ar dezakegu.

Bestalde, Euskalzaindia sortu zelarik, orduko helbururik nagusia batasuna zen. Orduan asi ziren horri buruz lanak agertzen, eta zenbait gauzatan asko aintzinatu zen. Altube, Campion, Broussain eta abar zirenetik asi eta, egungo Arantzazuko biltzarretaraino, ba dugu non ikas.

Ez dezagun pentsa, beraz, gu lehen urratsak ematen ari garenik. Gertatzen dena da, egun batasun hori geroago eta premia-tsuago senditzen dugula; eta horrengatik nahi genukela supituki erdietsi, denbora eta lanakin ez bada, lortzen ahal ez dena. Asko aldi, burukomin eta buruaste guztiak kendu ahal lezaizkeen sendagailua, gauekik goizera gure esku eduki dezakegula justu bai dugu; euskera batua, bere neurri eta muga guztiarekin osatuko litzaketen «urrezko giltza» alegia.

Beste gauzatan bezala, pensaera-moldeak ustetik izaterat nor-tzen doazila ikus dukegu. Gure kasuan halaber gertatzen da; has-tapeneko urratsek, batasunaren bideari gero eta lotutzenago doan egungo nahia oinarritzen dute.

Borondateen aldetik garbi asko dago batasun hori denok nahi dugula; halabainan sagarrak ez dira onten. Eta hau ez da honek ala harek trabak ezartzen dituelakotz, berez zailla delakotz baizik. Batasuna, ameka kondizionamendukin eta gidari batzuk direlarik, osatzen, egokitzen eta mamitzen doan egoera historiko-sozial bat baida.

Bainan goazen berriro ere euskalkiekin. Hauk literario saillan landuz gero, jatorrasuna eta gatzat gordetzen dira, bainan bizkitartean irakurleak guttitzen. Mintzaira batek behar duen eziera ez zen posible izanen; eta izkuntza bat sozial-funtserik gabe ez da bizitzen ahal. Ametskeri bat da.

Beste gauzak alde baterat utzirik, ez genuke alafede batasunik egin behar izanen, bizkaieraz amar millo presuna mintzatuko balira. Demografiko-oinarria dela medio, bizkaiera aise nagusituko zen. Bainan ez da horrelakorik gertatzen; ez bizkaieran, ez eta besteetan ere. Dakusagun bezala, euskalki batek ez du besteetan baztertzeko indar osorik.

Indarrak indar, egungo egunean euskera ahultzen doalarik, baz-tandar batek ez dio eibartar bati konprenitzen ahal; eta aintzin-gibelerat. Hau puntu bateraino normala da. (Ohart gaitezen gure ezi-gabetasunez). Bainan gure garaian, izkiriartzean ere euskaldun gehienek ulertzeko moduan saiatu beharrean, norberaren herriko euskalkiaz egiten baldin badugu (mintzatzean bezala, fonetismoak eta abar sartuz), elkar ezin ulertuz euskerak errekarat joko du, eta orduan, gureak egin du.

Anko Sendoa



ERROLANDOREN ARRIE»

Errolando gerralari aundiez aditza izanen duzu naski, adiskide: Orreaga inguru artan, Altabiskarren edo, galdu zuen borrokaldiaren berri ere badaukezu.

Errolando aundi au, oñiken gazte-gazte zela, zerbitzale azkar bat lagunteko artu ta, Baztango bide ta bidexkak ikastera etorri omen zen. Zerbitzale au Baztandarra omen zen; ta ongi zaskien emengo mendi, zoko ta erreka guzien berriek.

Lenik Larungo mendi gañetik begiraldi on bat eman omen zion Errolandok andik ageri zen inguru guziari. Gero, Zugarramurdiko leze batean loz ase ondoan, Alkurruntz gañera agertu omen zen, tartean ikusten zuen guzia ongi gogoan artuz.

Nausi te zerbitzale Alkurruntze igen zirenean Gorramendire beha yarri omen ziren: ta Errolandok, besoa luzetuz, «gain artan yendeak badabiltzek» omen zion, «Ez, yaune, ez dire yendeak; azienda (abere) miltzeue da» erantzuten dio zerbitzaleak. Errolandok: «Gizonak dituk ziurki, ta ez aziendak: goaye bereala etara, eken artean bizia galdu nai baduk: ortxe ikusi!». Irrimurriku batekin erantzuten dio mutilek: «Banoaye, zure baimenakin: ala ere, lenik Amayurko baserri batean sagardo edatera sartu nai nuke, egarriz itotzeko nago ta.» Nausiek: «Goaye, mutil, ase adi sagardo, taloz ta ardigasnaz ere bai nai baduk: ta an, gain artan dabiltzen zaldi te beor ditukelako oyek lepotik arrapa itzik al baduk, itsukapelu orrek!»

Badoaye zerbitzalea: yausten da lenik Amayurko kupelategi batera: leporaño betetzen du taloz, ardi-

gasnaz ta sagardo zabela: ta maldan goiti abiatzen da, baserrien urdailera sartuteko yan edan guziek izerdi putzu biurtuz.

Gorramendi gañera urbiltzean, irrintzi sendo bat egiten du; ta ango aize goxoa artzen zuten ta bertako belar goxoa yaten ari ziren abere guziek laukoan iges egiten dute, nausiari ola ez zirela gizonetakoak garbi adieraziz. Gero bago eder baten itzalean etzan zen mutile, taloak artu te gelditu ere bai. Nausiak bere kolokoko zion bein te berriz: «**Lekuen lekukoak daki obekieniek lekuen lekuko berri!**»

Arratsalde artan Alkurruntzik Sayora aldatzeko asmoak zauzken Errolandok. Zerbitzalea berriz, berte mendien patxadan lo! Oyuke ari zayo, ta alferrik! Azkenean, aserre bizien, arri aundi mutur zorrotz bat artzen du; ta bota nai dio mutillari ondora, aren erorkadako soñuekin iretzarri daien lozorrotik.

Arria botatzeko indar egitean, eskuñeko zangoa gorrotz berri batean irristetu-ta gibelat gaten zayo, ta arrie bidez erdien gelditzen ere bai. Au ikusiz, bere baiten zion Errolandok: «**Lanean astean, zangoak tinke lurrean.**»

Siñets edo ez siñets gertaera, antxe dago, nai duenak ikusi, Bozatetik Aritzakunerako bide bazterrean, «**Errolandoren arrie**». Nastik goitixago arkitzen al duzu, bere mutur zorrotza lurrean ongi sartua, ta betiko an gelditua, zuk ez baduzu ameltzen seurik.

ARITZ



Esaldien eta itzulpenen euskal kutsua

Izkiriartzen dugunek, nai eta nai ez, hutsak egiten ditugu; are geiago, euskaldun menditarrekin kasik beinere gurutzatzen ez garenek. Baina azken denbora huntan, gure aldizkarietan, itsuskeria franko ikusten da; zenbeitek erdaratik hitzez hitz itzulikatzen dituztelako beren esaldiak, ideiak euskeratu ordez.

Ideien itzulpena osatu ondotik, berriz erreparatu beharra dago izkiri-ribua, erdal orijinala begien bixtatik ekenduz; orduan irakurgaiari, galdu duen kutsua emanez.

Han eta hemen ikusi dugun zenbait esaera bihurri, ezarri nai dugu, egillerik salatu gabe, alegia; era zuzenak gazteek ikus ditzaten.

Astekari edatu batean irakurri dugu; ...**Elebitzara eraman du Altsazi edestiak**... **Bere Historia dala medio Alsazian bieleketa (elebitza) fin-katurik dago**... idatzi ordez.

Beste tokian... **Smith-ren**... irakurtzen dugu... **Smith delakoaren** idatzi ordez.

Izen arrotz eta zailleen ondotik komeni da... **dalako** hitza ezartzea, laztasuna leuntzeko.

Halaber... **Prehistori eta Etnologi lanetarako, espeleologi, arkeologi**... ordez... **Prehistoria eta etnologia, espeleologia**... idatzi, euskera lerdanago eta osatuago agertzen da.

...**Elkarizketa bat egin dute**... idatzi ordez... **Elkarrizketa bat izan dute**... egokiago da.

Gazteen jokaleku gerta dan bezala... gaizki dago... **gazteen jokaleku gertatu dan bezala**... esan behar da; iragana edo pretérito diren kasutan, —**gerta**— —**sar**— —**ikus**— ezin diralako usatu, —**gertatu**— —**sartu**— —**ikusi**— baizik.

Eguzkiak illunaldi batean... baino askoz geiago usatzen da, eclipse adiarazteko... **Eguzkiaren iluntze**, ...eta ...**erdi illuntze**... **eclipse parcial** esateko.

Idazle on batek, berea ez duen euskalkian... **Ez al da ezbaian bezela, kilikolo mintza**... izkiriartzen du... **Ez al da kilikolo mintzo**... idatzi beharrez.

Maixutza- sendagilletza- legelari-ritza- langilletza- nekazaritza... itz gogorrek, maiz irakurtzen ditugu, bata besteari datzikola; ...**maixugoa- sendakintza- nekazalgora**- lehunago diralarik, **ofizioa** adiarazteko.

Aldizkarietan ikusten dira ere: **-ganadutza- kapitanitza- etekingintza**; ...**abere-azkuntza**- (ganadería)- **Kapitania** edo **Kapitandegia- ontasunak** edo **mozkina** - itzen ordez; **-tza** eta **-goa** atzizkiak aldizkatu beharrak dira, matizaren arabera; eta irakurgaiaren esaldiera gogortasuna kentzearen, txairiago agertuz euskera.

Orain askok zuzen idazten dute:

(Jarraitzen da)

...**Baña Rusian non nahi ari dir** idatzi duenak bezela, euskalki menditarrek (ez bakarrik Lapur edo Bizkayan), Gipuzkoan berri-**Rusia- rusoak** - esaten-tuzten bala. Azkue zenak hala idazten zuen eta besteek ere.

Euskerazko r-dun itz guztiak dituzte asieran **-e** edo **-a** bat on-tzen; zuzen esaten eta idazten **-Erroma - Arrosa- erramu - erre** bainan aitzitik, ...**-romániko - ror-tiko - radio - Rumania - Rusia - i-by**... idatzi behar da, eta ez **-Emania - erromániko - Errusia**.

Deiturak berriz, aldatu egin gabe errespetatu behar dira, le-ko nortasuna dutelako; **-Razkin- tegi** - deitzen direnen abizenak; deiturak, ezin ditugu **-Errazkir Erretegi**- idatzi, hauek beste pre-nak diralako. **-Elissalt** deitzen da (naiz mordollo den), presuna da, eta **-Elizalde**- beste bat.

A. APAT-ETXEBARN

Orain askok zuzen idazten dute:

(Jarraitzen da)

LEIOZ LEIO (I)

Etxean, aunitz gauzetako ditugu leioak. Argia etxe barrera sartzen uzteko: bertan bizi direnek arnas alik osasungarriena artzeko: bertan bizitzea guziori atsegingarri biurtzeko: aunitz giro txarretan seurik, lana legorrenean, berokian, edo gorputzari goxo dagokion erarik obere-nean egiteko: ...eta azkenik, etxe inguruan zer gertatzen den ikusteko.

Egunaz leiotik datorren argi onak etxe barrera pozten du. Leio ttipi ttipiak dauzkan bizitegia, toki ttutlulua duzu, gizona! Zenbatenez leio aundiago, obe. Egunezko argiak ez dio etxe barrenari kalterik egiten: ez ta bertan bizi direnei ere: ona berriz, pileka!

Leio ttipi dun etxean, arnasgai on ta garbi gutxi arkitzearen arrixkua dago: etxe barrera bizi garenean, etxetik kanpo bizi garenean ta gabiltzenean bezenbat arnas artze ta uzte daramazkigu: arnas garbia artuz, odola (sendagilleak diote, ez nik) garbi dabilkigu; arnas zikiñakin berriz odola ere zikin. Zabal leioak lasai, adiskide: kanpoko arnasgai garbi ori iabil bedi zure etxeko txoko guzietaz: eta ortarako ainbateko leiorik ez badaukezu, aunditu bildurrik gabe dituzunak, zabaldu, zure birrikak ta etxeko gu-rirenak al bezein garbi ta indartsu irau denazaten.

Argi ausarki sartzen den etxean pozik arkitzen da bat: atsegin zaio an bizitea. Etxe ilunean berriz laister aspertzen da, argitik igeslari ez bada seurik bat.

Lanean pozik aritzeko laguntz obere-netatik bat argi ona izaten dugu. Erdizkako argiak gogogabetzen gaitu, batez ere ordu luzetan ta egu-



noro-egunoro erdizkako orrekinean ari behar badugu.

Etxe inguruan, ta al bada urr-txagoan ere, zer gertatzen dan nor dabilen ikusteko ere ongi da naski leioa, naiz leio au aundi e- ttipi izatea etzaion axolik ontara Leiolari amorratuari, ttipia edo, a- dia bada, erdi etsia egokiago za- leiotik gauzak ikustera ain oitu- baidaude, edozer leio artekatik begi bakarrarekin ere ederki i- ki- ten dute inguruan gertatzen d- guzia: ta kanpokoek barren alde- ko ikusi gabe gañera. Zenbait :- dur ormatze artzen dute orrela leiolari berriketariak, negu alde- batez ere!

IBARRONDO

